Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
Hezkuntza eta Hizkuntz Politika
Educación y Política Lingüística

**2322/17. DEKRETUA**

Diru-laguntzei buruzko araudia aintzat hartuta,

Leioako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra aintzat hartuta,

Leioako Udaleko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa eta horri dagokion kreditua egokia eta nahikoa dela aintzat hartuta,

Hezkuntza eta Hizkuntza Politika sailaren proposamena aintzat hartuta, ebazpen honen zio moduan baliatu dena,

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 f) artikuluak eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 10.4 artikuluak, besteak beste, ezarritako eskuduntzak erabiliz, honako hau XEDATZEN DUT:

Lehenik.- 2017-18 ikasturteko Eskolaz Kanpoko Ekintzen Diru-laguntzaren deialdia eta berariazko oinarri arautzaileak onartzea, jarraian datorren eranskinean zehazten den edukiarekin.

Bigarrenik.- Ebazpena argitaratzeko hona bidali: http://leioazabalik.leioa.net/

Alkate andreak, Mª Carmen Urbieta González, horrela agindu eta izenpetu du Leioan, bi mila eta hamazazpiko irailaren hogeitabatean. Eta horretaz guztiaz, nik, idazkaria, fede ematen dut.

**DECRETO NUM. 2322/17**

Considerando la normativa en materia de Subvenciones,

Considerando la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa,

Considerando el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa y la existencia de crédito adecuado y suficiente al respecto,

Considerando la propuesta del departamento de Educación y Política Lingüística, que sirve de motivación a la presente resolución,

En ejercicio de la competencia establecida entre otros por los arts. 21.1 f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local, y 10.4 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, DISPONGO:

Primero.- Aprobar la convocatoria y las bases específicas reguladoras de la subvención 2017-18 para Actividades Extraescolares con el contenido que se especifica en anexo posterior.

Segundo.- Remitir la resolución para su publicación en http://leioazabalik.leioa.net/

Así lo mandó y firmó la Sra. Alcaldesa, Dña. Mª Carmen Urbieta González, en Leioa, a veintiuno de septiembre de dos mil diecisiete, de todo lo cual, yo, la Secretaria, doy fé.

ALKATEA, IDAZKARIA,

Sin.:Mª Carmen Urbieta González. Sin.: Chiara Camarón Pacheco

| | |
|---|---|
| **2017-2018 IKASTURTEAN LEIOAKO IKASTETXE PUBLIKOETAN ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK.** | **BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA EL DESARROLLO DE ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES EN LOS CENTROS PÚBLICOS DE LEIOA DURANTE EL CURSO ESCOLAR 2017-2018.** |
| **OINARRIA** | **FUNDAMENTO** |
| Leioako Udalak, Leioako ikastetxe publikoei, horietako guraso-elkarteei eta horietan ikasten duten haurrei laguntzeko politikaren barruan, aipatutako elkarteekin | El Ayuntamiento de Leioa dentro de su política de apoyo a los centros escolares públicos de Leioa, a sus respectivas asociaciones de padres y madres y a los niños y niñas que |

| | |
|---|---|
| elkarlanean aritu nahi du ikastetxeko eskolaz kanpoko jardueren antolaketan, antolatutako jardueren kopuruan oinarritutako diru-laguntza bat emanez.<br><br>Diru-laguntzen emakida eta emailearen eta erakunde onuradunaren arteko harreman juridikoa oinarri hauen, Leioako diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorraren (2012ko abenduaren 17ko osoko bilkuran onetsi, eta 29. BAOn, 2013ko otsailaren 11koan, argitaratu zen) eta diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 30/2003 Lege Orokorraren (aurrerantzean, DLO) eta hori garatzeko araudiaren, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsiaren, arabera arautuko dira.<br><br>**1. DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA**<br><br>Leioako Udaleko Hezkuntzako eta Herritarren Partaidetzako Arloak diru-laguntzen deialdiaren oinarri hauek ezartzen ditu Leioako haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan eskolaz kanpoko jarduerak garatzeko.<br><br>**2. ERAKUNDE HARTZAILEAK**<br><br>Leioako titulartasun publikoko haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxeetako GE (guraso-elkarte) guztiek parte ahalko dute deialdi honetan, haien datuak deialdi honen **I. eranskinean** jasoz.<br><br>**3. AURREKONTU-KREDITUAK**<br><br>Hezkuntza Arloak **22.000 €** xedatuko ditu, **00501-32000-481.11.01 eskolaz kanpoko jarduueretarako diru-laguntzak** aurrekontu-partidatik, oinarri hauen xede diren diru-laguntzetarako.<br><br>Aurrekontu-kredituak murriztaileak izango dira; beraz, diru-laguntzen munta deialdi honetan onartutako gehieneko kreditura mugatuta eta baldintzatuta egongo da.<br><br>**4. DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK**<br><br>Haurraren garapen intelektualari, afektiboari, artistikoari, harremanetakoari edo norberaren hazkundeari laguntzen dioten jarduerak izango dira diru-laguntzaren xede.<br><br>Honako hauek ezingo dira diruz lagundu, hau da, ezingo diote deialdi honi heldu: kirol- | estudian en ellos, pretende colaborar con las mencionadas asociaciones en la organización de las actividades extraescolares del centro, otorgando una subvención en base al número de actividades organizadas.<br><br>La concesión de las subvenciones y la relación jurídica entre el otorgante y la entidad beneficiaria se regirá por las presentes bases, por la Ordenanza General de Subvenciones de Leioa, aprobada en sesión plenaria el 17 de diciembre de 2012 y publicada en el BOB nº 29 de 11 de febrero de 2013, y por la Ley 38/2003, de fecha 17 de noviembre, General de Subvenciones (en adelante LGS), y su Reglamento de desarrollo aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.<br><br>**1. OBJETO DE LA SUBVENCIÓN**<br><br>El Área de Educación y Participación Ciudadana del Ayuntamiento de Leioa, establece las siguientes Bases de la convocatoria de subvenciones para el desarrollo de las actividades extraescolares en los centros públicos de Infantil y Primaria de Leioa.<br><br>**2. ENTIDADES DESTINATARIAS**<br><br>Podrán participar en la presente convocatoria todas las AMPAs (asociaciones de madres y padres) de los centros escolares de Infantil y Primaria de titularidad pública de Leioa, haciendo constar sus datos en el **Anexo I** de esta convocatoria.<br><br>**3. CRÉDITOS PRESUPUESTARIOS**<br><br>El Área de Educación destinará **22.000 €**, con cargo a la partida presupuestaria **00501-32000-481.11.01 Subvenciones Actividades Extraescolares,** para las subvenciones objeto de estas bases.<br><br>Los créditos presupuestarios tendrán carácter limitativo, por lo que la cuantía de las subvenciones quedará condicionada y limitada al crédito máximo aprobado en esta convocatoria.<br><br>**4. ACTIVIDADES OBJETO DE SUBVENCIÓN**<br><br>Serán actividades objeto de subvención aquellas que ayuden al desarrollo intelectual, afectivo, artístico, relacional, de crecimiento personal del niño o de la niña.<br><br>No serán actividades subvencionables, es decir, no se podrán acoger a esta convocatoria, |

jarduerak (xakea izan ezik), curriculum-ikasgaiak sendotzea xede duten jarduerak (hala nola, hizkuntzak, kaligrafia, matematikak, testuen idazketa eta abar ikastekoak) eta berez curriculum-ikasgaiak ez diren arren horren osagaitzat jo daitezkeenak (adibidez, programa informatikoak erabiltzen ikastekoak, mekanografiakoak, etab.).

Hala ere, ikasten den hizkuntza bat kasuan kasuko benetako jarduera garatzeko komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzen duten jarduerak barne hartuko dira: sormenezko eraikuntza ingelesez, antzerkia ingelesez edo beste edozein jarduera beste edozein hizkuntzatan. Era berean, informatika sormen-jarduera baterako erabiltzen denean.

Diru-laguntzaren xede diren jarduerak 2017ko urriaren 1etik 2018ko ekainaren 24ra arteko aldian garatu beharko dira.

**5. AURKEZTEKO LEKUA, MODUA ETA EPEA**

Eskabideak udalaren Erregistro Orokorrean edo Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 38.4 artikuluan aipatutako lekuren batean aurkeztu beharko dira, udalak horretarako emango duen inprimaki normalizatuan (I eranskina).

Aurkezteko epea 2017ko urriaren 6etik 18ra izango da, biak barne.

Hasiera batean, ez da aurreikusten dokumentazioa ematerik, I. eranskinean eskatutako datuez gain.

**6. BIDERAPENA ETA EBAZPENA**

Hezkuntzako eta Herritarren Partaidetzako Arloko teknikaria izango da organo bideratzailea.

Hauek osatuko dute ebaluazioa egingo duen kide anitzeko organoa:

- Hezkuntzako eta Herritarren Partaidetzako Batzordeko burua, Enara Diez Oyarzun andrea.
- Partaidetzako arduraduna den zinegotzia, Alfonso Lopez Arevalillo jauna.

las actividades deportivas, con la única excepción del ajedrez, ni aquellas actividades que pretendan el refuerzo de las materias curriculares, como pueda ser el estudio de idiomas, caligrafía, matemáticas, redacción de textos etc., ni otras que aún sin ser propiamente materias curriculares pueden considerarse complementos del mismo, como aprender a usar programas informáticos, mecanografía etc.

Sí se incluirán, sin embargo, actividades que empleen un idioma de estudio como lengua vehicular para el desarrollo de la verdadera actividad objeto: construcción creativa en inglés, o teatro en inglés, o cualquier otra actividad en cualquier otro idioma. Igualmente cuando la informática se utilice para una actividad creativa.

Las actividades objeto de subvención deberán desarrollarse dentro del periodo que va del 1 de octubre de 2017 al 24 de junio de 2018.

**5. LUGAR, FORMA Y PLAZO DE PRESENTACIÓN**

Las solicitudes deberán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento, o en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 38.4 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en el impreso normalizado (Anexo I) que a tal efecto dispondrá el Ayuntamiento.

El plazo de presentación será desde el 6 al 18 de octubre de 2017, ambos inclusive.

No se prevé, inicialmente, entrega de documentación alguna, más allá de los datos requeridos en el Anexo I.

**6. INSTRUCCIÓN Y RESOLUCIÓN**

El órgano de instrucción será el Técnico del Área de Educación y Participación Ciudadana.

El órgano colegiado que efectuará la evaluación estará compuesto por:

- La presidenta de la Comisión de Educación y Participación Ciudadana, doña Enara Diez Oyarzun.
- El concejal responsable de Participación don Alfonso Lopez

- Kultura, Kirol, Gazteria eta Hizkuntza Politikako arduraduna den zinegotzia, Estibaliz Bilbao Larrondo andrea.
- Hezkuntzako eta Herritarren Partaidetzako Arloko Teknikaria, Joxe Belmonte F. de Larrinoa jauna.
- Ana López Asensio izango da idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Eskaerak alkatetza-dekretuaren bidez ebatziko dira, organo bideratzaileak proposatuta, hilabeteko epean, eskaerak aurkezteko aldia bukatzen denetik zenbatuta. Hezkuntzako eta Herritarren Partaidetzako Informazio Batzordeari eta Tokiko Gobernu Batzarrean emango da dekretuaren berri.

Kide anitzeko organoaren arabera oinarrietan eskatutako betekizunak biltzen ez dituzten eskaerak baztertuko dira.

Nahiz eta ikastetxe bakoitzeko guraso-elkarteak erabakiko duen talde bakoitzeko gutxieneko parte-hartzaile kopurua, eskolaren egoeraren eta jardueraren ezaugarrien arabera, organo bideratzaileak azalpenak eskatu ahalko ditu, baita diru-laguntzatik baztertu ere, kide anitzeko organotik pasatu ondoren, izena eman dutenen kopurua txikiegia bada.

Organo bideratzaileak jarduera zehatz baterako diru-laguntza ematea bidezkoa den ala ez argitzeko egokitzat jotzen duen edozein dokumentazio osagarri eskatu ahalko dio elkarteari.

**7. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA**

Laguntza hauek bateragarriak dira beste erakunde publiko eta pribatu batzuek eman ahal dituztenekin, baldin eta proiektua gauzatzeko xedatutako guztizko aurrekontua gainditzen ez badute. Dena den, ez dira bateragarriak beste zinegotzitza edo udal-arlo batzuetatik proiektu bererako jaso ahal direnekin.

Arevalillo.

- La concejal responsable de Cultura, Deportes, Juventud y Política Lingüística doña Estibaliz Bilbao Larrondo.
- El técnico del Área de Educación y Participación Ciudadana, don Joxe Belmonte F. de Larrinoa.
- Actuará como secretaria, con voz pero sin voto, doña Ana López Asensio.

Las solicitudes serán resueltas mediante Decreto de Alcaldía a propuesta del Órgano Instructor, en el plazo de un mes a partir de la finalización del periodo de presentación de solicitudes, y se dará cuenta del Decreto a la Comisión Informativa de Educación y Participación Ciudadana y en la Junta de Gobierno Local.

Serán excluidas aquellas solicitudes que, según el Órgano Colegiado, no reúnan los requisitos exigidos en las Bases.

Si bien será la asociación de padres y madres de cada centro quien decida el mínimo de participantes en cada grupo, conforme a la realidad de su colegio y a las características de la actividad, el Órgano de Instrucción podrá pedir explicaciones e incluso excluir de la subvención, previo paso por el Órgano Colegiado, a un grupo cuyo número de inscritos sea anormalmente reducido.

El Órgano Instructor podrá requerir a la asociación solicitante cualquier documentación complementaria que considere oportuna a los efectos de dilucidar si resulta o no pertinente la concesión de subvención por una actividad concreta.

**7. COMPATIBILIDAD CON OTRAS AYUDAS**

Estas ayudas son compatibles con las que pudieran ser concedidas por otros organismos públicos y privados, siempre que no supere el total del presupuesto destinado a la realización del proyecto, no así con las que pudieran recibirse por el mismo proyecto de otras concejalías o áreas municipales.

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
Hezkuntza eta Hizkuntz Politika
Educación y Política Lingüística

## 8. ZENBATEKOEN ZEHAZTAPENA eta DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Emakidaren zenbatekoa ehuneko lineala izango da, laugarren oinarriko irizpideen arabera diruz lagundu daitezkeen eskolaz kanpoko jarduerengatik egingo den guztizko gastuan oinarritua; hau da, diruz lagundu daitezkeen lantegi edo jarduera guztien kostua hartuko da aintzat (III. eranskina), eta kopuru horretan materialak eta beste edozein kostu hartuko da barne, **hezkuntza-premia bereziak dauzkaten haurrek behar dituzten monitore laguntzaileak eta indargarriak izan ezik**; inguruabar hori eskaera-orriko dagokion atalean jasoko da (II. eranskina).

Kide anitzeko organoak erabakiko du eskolaz kanpoko jarduerei denera jota emateko diru-laguntza ehuneko lineala. Deialdi honen hirugarren oinarrian aipatutako aurrekontua izango da muga, eta, nolanahi ere, diruz lagundu daitezkeen jardueren guztizko kostuaren % 40 izango da gehieneko diru-laguntza ehunekoa, baina **aurreko paragrafoan aipaturiko salbuespena kontuan hartuta, hots, hezkuntza-premia bereziak dauzkaten haurrek behar dituzten monitore lagungarriak; horiek kostuaren % 40ko diru-laguntza izango dute, oinarri hauek finkatua, hau da, jarduerarako ezarritako maximoa.**

Diru-laguntzaren ordainketa GEak helburu horretarako zehaztuta duen kontura banku-transferentzia eginez izapidetuko da, emakida alkatetza-dekretuaren bidez onartutakoan.

Diru-laguntzak guztiz ordainduko dira emakida alkatetza-dekretuaren bidez onartutakoan, familiei kuota jardueren hasieratik merkatzeko eta elkarteen jarduteko ahalmenari laguntzeko asmoz.

Ez dira ordainduko elkarte eskatzaileak aldez aurretik emandako beste diru-laguntza batzuk justifikatzeke baldin baditu.

## 9. ELKARTE ONURADUNEN

## 8. DETERMINACIÓN DE LAS CUANTÍAS y ABONO DE LA SUBVENCIÓN

El importe de la concesión será lineal porcentual en base a la totalidad del gasto a realizar por el concepto de actividades extraescolares de las consideradas subvencionables conforme a los criterios de la base cuarta, es decir, se tendrá en cuenta el coste de todos los talleres y/o actividades subvencionables (Anexo III), incluyendo en esa cantidad los materiales y cualquier otro coste, **excepción hecha de los posibles refuerzos, monitores /as auxiliares, que niños o niñas de Necesidades Educativas Especiales pudieran requerir**, circunstancia que se hará constar en el apartado correspondiente de la hoja de solicitud, Anexo II.

Será el Órgano Colegiado quien decida el tanto por ciento de subvención lineal a las actividades extraescolares en su conjunto, con el límite del presupuesto citado en la base tercera de esta convocatoria, estableciéndose, en todo caso, un 40% del coste total de las actividades subvencionables como porcentaje máximo de subvención, **pero con la excepción ya mencionada en el párrafo anterior de los y las monitoras auxiliares requeridas por los niños y niñas de Necesidades Educativas Especiales, que tendrán una subvención fijada por estas bases del 40% de su coste, es decir, el máximo posible establecido para la actividad.**

El abono de la subvención se tramitará mediante transferencia bancaria a la cuenta que el AMPA tenga determinada para este fin, una vez aprobada su concesión por decreto de Alcaldía.

Las subvenciones se pagarán en su totalidad una vez aprobada su concesión por decreto de Alcaldía con objeto de abaratar la cuota a las familias desde el comienzo de las actividades y favorecer la maniobrabilidad de las asociaciones.

No se efectuará su abono si la asociación solicitante tiene pendiente de justificar otras subvenciones anteriormente concedidas.

## 9. OBLIGACIONES DE LAS ASOCIACIONES BENEFICIARIAS

| | |
|---|---|
| **BETEBEHARRAK**<br><br>Eman zaion diru-laguntzari eskatzeko azaldu zen helburu zehatza ematea.<br><br>Diruz lagundutako jarduereetako bat egin ez bada, udalari jakinarazi beharko diote eta, jarraian, zati proportzionala itzuli.<br><br>Udal honek emandako eta deialdi hau baino lehen jasotako diru-laguntzak edo laguntza ekonomikoak behar bezala justifikatuta izatea.<br><br>Jarduerak bukatutakoan, egin direla justifikatu beharko da, 2018ko uztailaren 13a baino lehen udalaren erregistroan MEMORIA bat aurkeztuz; memoria horretan, diruz lagundutako eskolaz kanpoko jarduera horiek bete direla justifikatu beharko da eta egindako gastuak eta jarduerak jaso dituen beste diru-sarrerak edo diru-laguntzak zehaztu beharko dira, egonez gero. | Dar a la subvención concedida el destino para el que fue solicitada.<br><br>Si alguna de las actividades subvencionadas no se realizase, deberán comunicarlo al Ayuntamiento para proceder a continuación al reintegro proporcional correspondiente.<br><br>Haber justificado debidamente subvenciones o ayudas económicas concedidas por este Ayuntamiento y percibidas con anterioridad a la presente convocatoria.<br><br>Una vez concluidas las actividades deberán justificarse la realización de las mismas presentando en el Registro del Ayuntamiento antes del 13 de julio de 2018 una MEMORIA justificativa del cumplimiento de dichas actividades extraescolares subvencionadas, con relación detallada de los gastos realizados y de otros ingresos o subvenciones que haya recibido la actividad, si los hubiera. |
| **10. BETEBEHARRAK URRATZEAGATIKO ERANTZUKIZUNAK**<br><br>Diruz lagundutako jarduera burutzen ez bada, diru-laguntza ezarri bezala justifikatzeko betebeharra urratzen bada edo laguntza hori eskas justifikatzen bada, onuradunak emandako diru-laguntzaren zenbateko guztia edo zati bat itzuli beharko du, urratze-mailaren arabera. Itzultzeko prozedura Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritakoarekin eta Leioako Udaleko diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorreko (2012ko abenduaren 17ko osoko bilkuran onetsi, eta 29. BAOn, 2013ko otsailaren 11koan, argitaratu zen) hamazazpigarren eta hemeretzigarren oinarriekin bat etorriko da.<br><br>Leioan, 2017ko irailaren 18an | **10. RESPONSABILIDADES POR INCUMPLIMIENTO DE OBLIGACIONES**<br><br>La no realización de la actividad subvencionada, el incumplimiento de la obligación de justificación de la subvención en los términos establecidos o la justificación insuficiente de la misma implicará la obligación por parte del beneficiario de reintegrar el importe total, o parcial, dependiendo del grado de incumplimiento, de la subvención concedida. El procedimiento de reintegro se ajustará a lo establecido en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y a las bases decimoséptima y decimonovena de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa, aprobada en sesión plenaria el 17 de diciembre de 2012 y publicada en el BOB nº 29 de 11 de febrero de 2013.<br><br>Leioa, a 18 de septiembre de 2017 |

Sin.: Mª Carmen Urbieta González

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
Hezkuntza eta Hizkuntz Politika
Educación y Política Lingüística

**ESKAERA ORRIA /** HOJA DE SOLICITUD

**I Eranskina /**Anexo I

**Eskatzailearen datuak /** Datos del/la solicitante

**ENTITATEA/**ENTIDAD

| | | |
|---|---|---|
| **Eskatzailea** | | Solicitante |
| **Helbidea** | | Dirección |
| **E-maila** | | E-mail |
| **Telf.** | | Telf. |
| **Banku-kontua** | | Nº Cuenta |

**LEGEZKO ORDEZKARIA/** REPRESENTANTE LEGAL

| | | |
|---|---|---|
| **Izen-abizenak** | | Nombre y apellidos |
| **NAN** | | DNI |
| **Kargua** | | Cargo |
| **Helbidea** | | Dirección |
| **E-maila** | | E-mail |
| **Telf.** | | Telf.|

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
Hezkuntza eta Hizkuntz Politika
Educación y Política Lingüística

**ESKAERA ORRIA /** HOJA DE SOLICITUD

**II Eranskina /**Anexo II

**Eskolaz kanpoko ekintzak /** Actividades extraescolares

**(Fitxa bat ekintza bakoitzeko/** una ficha por cada actividad**)**

| | | |
|---|---|---|
| **Eskatzailea (IGE)** | | Solicitante (AMPA) |
| **Ordena zenbakia**<br>(Eskatutako ekintza-kopuru osoari erreferentzia eginez: 1/8, 2/8 …) | | Nº de orden<br>(Haciendo referencia al nº total de actividades solicitadas: 1/8, 2/8 …) |
| **JARDUERA /** ACTIVIDAD | | |
| **Jardueraren izena** | | Nombre actividad |
| **Nork emana** | | Impartida por |
| **Jardueraren deskribapena** | | Descripción de la actividad |
| **Jardueraren helburuak** | | Objetivos de la actividad |
| **Inskribatuen kopurua/ talde kopurua**<br>(Adibidez, 42/3.<br>42 inskribatu 3 taldetan) | | Nº de inscritos-as/ Nº de grupos<br>(Ejemplo, 42/3. 42 inscrits en 3 grupos) |
| **EGUTEGIA /** CALENDARIO | | |
| **Eguna eta ordua** | | Día y hora |
| **Lehen eguna** | | Primer día |
| **Azken eguna** | | Último día |
| **Ikasturteko ordu kopurua** | | Horas en total curso escolar |

| **JARDUERAREN KOSTEA /** COSTE DE LA ACTIVIDAD | | |
|---|---|---|
| **1.- Hezitzailearen ikasturteko kostea** | | 1.- Coste del educador /a todo el curso |
| **2.- Materialak (urte osokoak)** | | 2.- Materiales (de todo el año) |
| **EKINTZA HONEN URTEKO KOSTEA (1+2)** | | COSTE ANUAL DE ESTA ACTIVIDAD (1+2) |

| **MONITORE BEREZIEN KOSTEA** | | |
|---|---|---|
| **Behar berezietako monitorearen kostea, egongo balitz** | | Coste del monitor/a de necesidades educativas especiales, si lo hubiera |
| **%40** | | 40% |

UDALA-AYUNTAMIENTO
Hezkuntza eta Hizkuntz Politika
Educación y Política Lingüística

# **ESKAERA ORRIA** / HOJA DE SOLICITUD

## **III Eranskina** /Anexo III

**Guztizko kostea/** Coste Total

| **Eskatzailea (IGE)** | | Solicitante (AMPA) |
|---|---|---|

| **ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN GUZTIZKO KOSTEA**<br>COSTE TOTAL DE LAS ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES | | | |
|---|---|---|---|
| **Ordena zenb.**<br>Nºorden | **Jarduera**<br>Actividad | **Talde kop.**<br>Nº grupos | **Guztizko Kostea**<br>Coste Total |
| 1 | | | |
| 2 | | | |
| 3 | | | |
| 4 | | | |
| 5 | | | |
| 6 | | | |
| 7 | | | |
| 8 | | | |
| 9 | | | |
| 10 | | | |
| **KOPURU OSOA** /SUMA TOTAL | | | |

**Data eta sinadura** / Fecha y firma